

"Saltoka" argazkia izan da XV.edizikoko irabazlea

2016/05/31

MONDRAGON UNIBERTSITATEko Kirol Zerbitzuak antolatutako XV. argazki lehiaketa MGEP fakultateko Jon Xabier Zabala Atorrasagastik irabazi du. Guztira 19 partaide eta 52 argazki aurkeztu dira edizio honetan.

Aurtengo gaia "jarduera fisikoa ingurune naturalean" izan da eta lan bikainak ikusi ditugu. Hauek izan dira epaimahaiak "saltoka" argazkia aukeratu izanaren arrazoiak:

"Teknikoki argazkia oso txukuna da; kolore biziak ditu eta kontraste handikoa da.

Konposizio polita dauka, angulazio berezi batekin: kontrapikatua. Horrek egiten du protagonistaren indarra areagotzea."

Mezuari dagokionez "askatasuna, ahalegina eta arrakasta bezalakoak" iradokitzen dituela argudiatu du. Gainera, "gaia bera oso ondo islatuta dagoela" iruditu zaio epaimahaiari.

Lehiaketako irabazleak 100€ poltsikoratzeaz gain, datorren ikasturtean Kirol Zerbitzuko egutegian ikusiko du bere lana.

Mila esker partaide guztiei eta zorionak Jon Xabier!!

ARGAZKI GUZTIAK IKUSAGI



XV. argazki lehiaketako irabazlea.
Jon Xabier Zabalaren "saltoka"
argazkia